OBJETIVOS DE DESARROLLO DEL MILENIO
www.objetivosdelmilenio.com

Educación Sin Fronteras

Hezitzaileentzako fitxa pedagogiko lagungarriak

Bakearen Nazioarteko Eguna

1981ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak Bakearen Nazioarteko Egunaren sorrera onartu zuen, eta 2001etik aurrera urtero irailaren 21ean ospatzea dekretatu zen. Egun horretan, nazio bakoitzean, herri bakoitzean eta haien artean bakea lortzeko idealak ospatzen eta indartzen dira. Egun horretan, mundu osoan armak uzten dira eta indarkeria baztertzen da, nazio eta herri guztiak motibaturik senti daitezen, egun horretan liskarrak bertan behera uzteagatik.

MGH: 2000. urtean, 191 estatuburuk eta gobernuburuk Milurtekoko Adierazpena sinatu zuten, eta elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten, 2015a baino lehen Milurtekoko Helburuak (MGH) betetzeko eta munduko muturreko pobreziarekin amaitzeko. Aurrekaririk gabeko konpromiso bat izateaz gain, zortzi MGHak garapenaren biderako aurrerapauso handi bat dira. Hona hemen *1. helburua*: *Muturreko txirotasuna eta gosea desagerraraztea,* Bakearen Nazioarteko Egunaren harira.

MGH honen **helburu** nagusiak honako hauek dira:

1) 2015a baino lehen, egunero dolar bat baino gutxiago irabazten duten pertsonen proportzioa erdira murriztea. 2) Enplegu betea, produktiboa eta guztiontzako lan duina lortzea, emakumeak eta gazteak barne. 3) 2015a baino lehen, gosea pairatzen duten pertsonen proportzioa erdira murriztea.

Datuak: *Muturreko txirotasuna ohikoa da gaur egun ere; izan ere, 1.000 milioi pertsonak baino gehiagok dolar bat baino gutxiago dute egunero bizirauteko. 963 milioi pertsonak behar baino janari gutxiago dute beren eguneroko beharrak asetzeko.*

Jarduerak

1. DBHko 1. zikloa

Jarduera: ***Lankidetza-aulkiak***. Aulkien joko klasikoa da, baina desberdintasun bat dago, hau da, aulkiak kentzen dira, baina ez partaideak. Neska-mutilek elkarrekin estrategia bat aurkitu behar dute gelan dauden aulkietan guztiak eseri ahal izateko. Azkenik, 4 edo 6 aulki inguru soilik geratuko dira, eta guztiek eseri beharko dute. Orduan, lortu duten erronka erakusten duen argazki bat egingo dute. Argazkia egin ondoren, eztabaidatxo bat egin dezakete negoziazioak, elkarrizketak eta elkarrekin lan egiteak bizikidetza ona lortzeko eta gatazkak kudeatzeko duten garrantziari buruz.

2. DBHko 2. zikloa

Jarduera: ***Armiarma-sarea***. Jokoari ekin baino lehen, irakasleak artilezko armiarma-sare bat egin behar du bi zuhaitzen edo bi kaleargiren inguruan. Neurri desberdinetako tarteak uztea komeni da, eta zabalenek metro batetik gorako garaieran egon behar dute. Taldea armiarma-sarea dagoen tokira eramango da, eta hariak ukitu gabe zeharkatu behar dutela azalduko zaie. Guztiek igaro beharko dute, eta, ondorioz, elkarrekin estrategia bat pentsatu beharko dute. Dinamikaren ondoren, zein estrategia erabili duten analizatu ondoren, taldean nola egin duten lan, arazoak nola konpondu dituzten, eta, batez ere, zein arazo eta nola konpondu dituzten eztabaidatuko dute.

3. Batxilergoa

Jarduera: ***Muga zeharkatzea***. Taldeari zirkuluan jartzeko eskatuko zaio, eta taldeko dinamika bat egingo dutela azalduko zaie. Irakaslea zirkuluaren erdian jarriko da, eta lurrean paper zuri bat jarriko du. Orduan, ikasleei azalduko die beste aldera igaro behar dutela. Kontuan hartu beharko da irakaslea zirkuluaren erdian geratuko dela, eta, ondorioz, ikasleek berarekin eta lurrean duen paperarekin topo egingo dute beren helmugara iristeko. Banan-banan, irakaslea dagoen tokitik igarotzen saiatuko dira, eta irakasleak ez die hitz egingo eta ez diela ulertzen emango du. Ez die igarotzen utziko, eta igarotzeko estutzen dutenean haserretu egingo da. Irakasleak berarekin hitz egiten dutenean, komunikatzen direnean eta lurrean dagoen papera berarentzat garrantzitsua dela eta gorde nahi duela ulertzen dutenean soilik utziko die igarotzen. Jarduera bukatu ondoren, elkarrizketa bizikidetzarako eta bakerako zein garrantzitsua den eztabaida dezakete.